

## Euskal herrietan komentuz komentu

# Loiolako jesulagunak

*La Comunidad de Jesuitas de Loyola ha conocido no sólo las circunstancias de las varias exclaustraciones generales de los religiosos (1820, 1835...), sino también las propias de la Compañía de Jesús (1767, 1932). El Santuario se ha visto privado de su Comunidad religiosa una y otra vez. No obstante, siempre ha renacido y se ha esmerado en tareas muy variadas: atención a peregrinos y ejercitantes, formación de jóvenes jesuitas, enseñanza comarcal, predicación, etc.*

Jesulagunek Euskal Herrian izan duten gune historiko-sinboliko ikusiena izan da Loiolakoa, eta 1682az geroztik Santutegiko eta San Ignazio-ren dorretxe jaiotetxeko zaintzaile izan dira jesulagunak, aipatuko ditugun gorabehera guztiei aurre eginez. Bestalde, Loiola benetan ondare-anitza da, bere arkitekturarekin, biblioteca eta artxibo aberatsekin; erromesen emana handia da Santutegi honetan, gogo-jardunek badute beren egoitza, etab. Eta guztiaren erdian dago bertako jesulagunen lagunartea.

### Jesulagunak beren historian

Eneko Loiolakoaren inguruan 1530eko hamar-kadan bildu zen lagunarte bat Parisen, eta 1540an onartu zuen Paulo III.ak Eliz Erakunde gisa gerora Jesusen Lagundia deituko zen hura. Hala ere, 1773an, beste Aita Santu batek, Klemente XIV.ak, desegin zuen bi mende lanean zeramatzan Lagundia. Berrogei urte geroago, hirugarren Aita Santu batek, Pio VII.ak, berregin zuen Erakunde (1814). Loiolara itzuli (1816) eta handik honakoa izan da "Lagundi Berria" deituaren Santutegiko historia.

Euskal Hegoaldeko Lagundiak Espainiako legeen eta politika-aldakuntzen menpean ibili behar izan du bere bidea, eta beraz, baita Loio-

lako komunitateak ere. Baina,aldi berean, euskal gizarteko historia ekonomiko eta politikoren goraldietan aurkitu du bere garapen-laguntza, herriko klase ezberdinen eta Herri-Erakundeen babesean. Jesuitena ez ezik herritarren historia interesgarria da hori.

Hemen ikusita daukagunez, XIX. mendeko politikak gorabehera handiak izan zituen, gerra zibilak ere tartean zirela, eta horiekin batera, komentuen itxierak eta erlijiosoen sakabana-ketak. Loiolan ere halaxe gertatu zen, nola 1820an hala 1835ean.

Jesulagunek ez zuten izan armak hartuta gerrara joan zenik, baina garaiko eraso politikoa jasanda, bistan da ez zedela liberalen politika onartzeko modun ere. 1868-1874. etako Sei Urteko iraulketa politikoak han-hemen sakanatuta eduki zituen Loiolako jesulagunak, 1869ko dekretu baten ondorioz (asko erbeste-an, eta hainbat inguru etako herrietan, talde txikitik bilduta); gero, gerra-ostean, urak beren onera zetozela zirudienean, Cánovas monarkikoak susmagarri omen ziren jesulagunak Loiolatik bota egin zituen (1876-1880), hain zuzen Arantzazun bestelako politika egiten zuen bitartean (1878): bi politika kontrajarri eta Cánovas-entzat elkarren osagarriak, noski.





### **Loiolako jesulagunak XX. mendean**

Espainiako II. Errepublikak bere egiteko handien artean izan zuen Espainiako Elizaren zeregin eta leku soziala birmoldatzea, lur-jabe handiekiko Nekazal Erreformari ekin eta Armada ere berretzen zuen bitartean. Politika erlijiosoan Jesusen Lagundia gertatu zen beren-beregiago Errepublikak begitan izan zuena, Lagundia lege bidez sakabanatzeraino (1931-1932). Gero, gerra bukatu aurretik ere itzuli ahal izan ziren jesulagunak Santutegira (1937ko ekainean).

Gerra-ostetik honakoan, Loiolako jesulagunek lan ugari egin dute Loiolan bertan Lagundiarentzat eta Santutegitik herrietarako joan-etorrian: alde batetik, bertako zereginetarako apaiz eta anaia laikoek, Loiolan bildutako jesulagun gazteen hezkuntzan (Nobizio-Etxea, 1880-1932...; Filosofia Eskolako ikasleak, 1956-1968), herritarren elkarrekin, Azkoitiko Eskolan, etab. Beti Santutegiko elizan eta erromesen zerbitzuan, eta Gogartetxe berrian ere (1972...). Ez dugu ahaztu behar Loiola dela Lagundiaren sortzaile nagusiaren sorlekua, eta jesulagunen oroimen historikoaren gordailu.

Ezinezkoa da hemen azken 200 urteetako Komunitatearen historia zehazkiago aurkeztea, hainbat alde dituelako eta garai ezberdinetan dena are aldagarriagoa izan delako ere (gizarte eta mundu politikoan bezala Lagundiaren historian ere).

Loiola bere lanetan hazi egin da XX. mendean, eta zerbitzu-gune zaharrak berriztatu edo berriak sortu ere egin ditu. Gogo-jardunen igotza nabaria izan da, adibidez: 1900-01. urtean

63 txanda eman ziren, baina 1950-51n 153, kasu honetan 5.520 gogo-jardulek parte hartzen zutela. Geroztik, ohikoak diren gorabeherekin, ongi zaindu izan da Gogo-jardunen hau eta ingurumarian bildu izan diren biltzar eta bilerak. Loiola jende eta elkarre askoren topalekua da.

Azpimarra dezadan hemen, Loiola nazioartean izen ezaguna dela, San Ignazio bera bezala. Lagundiaren hedapenak eta indarrak berekin dakarte hori, noski. Alde batetik, mundu osoko jesulagunen "sortetxea" dela esango genuke, eta Interneten ikus dezakezue "Loiola" munduan zehar nola dabilen. Bertara datozen bisitariak (erromes, turista, herritar eta izen handiek) ongi erakusten dute hori, Aita Santu, Errege, politikari, jakitun eta abarrengandik hasi eta herritar xumeenganaino.

1900ean 129 ziren Loiolako jesulagunak: 21 apaiz, 67 jesulagun ikasle eta 41 anaia laguntzaile. 1951n, ostera, 211 lagun: 29 apaiz, 99 jesulagun ikasle, eta 83 anaia laguntzaile. Azkenik, 2000n, 74 lagun: 38 apaiz eta 36 anaia laguntzaile. Gaur egun berrogeiren baten inguruan dabilza.

Kopuru ezberdin horietan erreparaturik ikus daiteke Loiolak nola hartu dituen bere baitan hurrenkeran etorri diren Probintzia erlijioso ezberdinetako zeregin orokor batzuk (hezkuntza batez ere, eta orain osasun-zainketa). Euskal Herriko jesulagunen harrobi eta mintegi izan da Loiola 1970-eko hamarkada arte, geroztik Loiolako Probintzia erlijiosoan adinekoen babesleku ere delarik.

**Joseba Intxausti**